


# NAZIOEN TOURRA

## KAZETARITZA, IDENTITATEA ETA KIROLA

Xabier Fernandez

EKAINA
2023

Txirrindularitza-lasterketa bat izatetik harago, Tourra nazio harrotasuna eta identitateak sustatzeko tresna bat izan da sorreratik beretik, 1903tik. Berehala bihurtu zen frantses nazioko kirol-ekitaldirik ezagunena, gero eta estaldura mediatiko zabalagoa erakarriz; halere, frantsesek lasterketa gobernatzeko izan dituzten moldeak aldatu egin dira mende pasatxoan, gizartearen tentsioek eta gatazkek hartaratuta. Kazetaritza-lan honetan, Tourraren historia kontatzen zaigu prentsaren eta naziotasunaren ikuspegitik. Beste kirol-ekitaldi batzuk baino nabarmenago, XX. mendeari zentzua emateko balio izan du Tourrak, hainbat gai arantzatsu tarteko: esate batera, klase-harremanak, genero-rolak, gizarte-kohesioa, batasun nazionala, lanaren izaera eta osasun publikoa. Horrela, prentsa idatziaren azterketa xehearen eta aditu zein arituen lekukotzen bitartez, agerian geratuko da hedabideek sortutako irudiek eta bultzatutako mezuek zer-nolako eragina izan duten nazio-identitateen eraikuntzan eta deseraikuntzan.

**SAIAKERA**


| | |
|---|---|
| ISBN: | **978-84-19319-57-9** |
| ORRIALDEAK: | **200** |
| FORMATUA: | **13.5 x 21,5** |
| PREZIOA: | **18,00€** |


KAZETARITZA | KIROLA | SAIAKERA

- **Historian bigarren aldiz, Tourra Euskal Herritik abiatuko da 2023an; zehazki, uztailean eta Bilbotik izanen da, eta hiru etapa eginen ditu euskal lurretan barna.**
- **Kazetaritza lan honetan, Tourraren azterketa historikoa egiten da, izan duen bilakaera agerian utzita: eskualde, nazio, Estatu eta babesleen arabera multzokatutako lehiakideak, gatazka sozialek markaturiko edizioak, etapa eta polemika esanguratsuak, hedabideetako iruditegi eta diskurtsoak...**
- **Autorea, kazetaria izandakoa bera, aditu/arituen lekukotzetan eta prentsa idatzian oinarritu da lan honetarako; zehazki, kazeta hauek aztertu ditu: *L'Auto, ABC, Mundo Deportivo, Marca, Le Monde, L'Equipe, Excelsior, El País, Egin, Gara, Euskaldunon Egunkaria* eta *Berria*.**



**XABIER FERNANDEZ MONJE** (Bilbo, 1962). Errekaldetarra. Informazio-zientzietan doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta IN-Komunikazioa agentziaren sortzailea (2019). Athletic Clubeko prentsaburua izan da (2001-2019), eta erredaktoreburu *Gara* (1999-2001) eta *Egin* egunkarietan (1984-1998). Hainbat liburu idatzi ditu, besteak beste, *Julen Guerrero, alma de ganador* (El País-Aguilar, 1996), Jon Larrearekin batera; *Euskal Herriko Futbolaren Entziklopedia* (Aralar, 2001), zuzendaria eta egileetako bat; *Lezama, Athleticen bihotza* (Athletic Club, 2011), gidoigilea eta egileetako bat; eta *Iker Muniain, un balón, un escudo, una vida* (Panenka, 2021).

9 788419 319579

txalaparta
Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus